

EAEko Ikastoletako Lan Hitzarmena berritzeko aurreakordioa sinatu da

Pasa den asteartean, ekainak 7, LAB sindikatuak, Ikastolen Elkarteak eta Eusko Ikastola Batzak-EAEko ikastoletako Lan Hitzarmena berritzeko akordioa adostu dute.

Adosturiko akordioan, Lan-hitzarmen berriak jaso beharreko hobekuntzak zehazten dira, eta bertan bi aldeok, gehienez 3 hilabeteko epean, Lan Hitzarmen berria idazteko konpromisoa hartu dute.

Hona hemen akordioak dituen alde nagusiak:

- Lan-sariak: 2021ean oinarrizko soldata eta antzintasunean lan-sari baxuenak dituzten lan kategorietarako %1,75 soldata igoera. Gainerako kategorietarako, %1,4.
- DBHko maisu-maistren soldata parekatzea lizentziatuekin 3 urteko epean.
- Mantenu-langile eta sukaldari-languntzaile kategorien desagerpena. Langile hauek goiko kategoria hartuko dute.
- Lan-kargaren arintzea:
 - Hezkuntza Laguntza Espezialistek astean ordu erdi osagarri gehiago edukiko dute.
 - Haur Hezkuntzako bigarren zikloko tutoreei ikasturteko eskola-orduak 15 orduz jaitsiko zaizkie eta Lehen Hezkuntzako tutoreei ikasturteko eskola-orduak 20 orduz jaitsiko zaizkie.
- Ikastoletako langileen kudeaketan ikuspegi nazionalerako urratsak:
 - Ikastoletako kontratazio batzordeek Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko sarean metaturiko lan-esperientzia aintzat hartu beharko dute eta Euskal Herriko Ikastoletan eszedente eta beharren prozedura gauzatzeko orduan Euskal Herri osoko ikastolak hartuko dira kontuan.
- Klausula feministak:
 - Ikastola guztietan berdintasun planak gauzatzeko prozedura eta epeak zehazten dira.
 - Indarkeria matxista pairatu duten langileei nahitaezko eszedentzia hartzeko eskubidea aitortuko zaie.

Irakaskuntzan STEILAS!

www.steilas.eus